

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Txakartegi Zendoia

*Mendexa,
Bizkaia
(1931-2024)*

Aurkibidea



Biografia



1931ko martiaren 23an jaio zan Mendexan, Santionea baserrian. Bederatzi neba-arrebatatik bigarrena da bera. Baserrian bertan egin du beharra ia beti, nahiz eta beste baserrietako basoetan ere ibili zen. Gainera, Eigureneko zerran ere ibili zen. Umetan elizako antzerki taldeari eta etxean bizi zuen giroari esker, euskal kulturaren harra sartu zitzaion. Bertsozalea da, eta bertsopaperen bitartez, euskara irakurtzen eta idazten ikasi zuen. Zeruko Argian idatzi zuen 60 eta 70. hamarkadetan inguruko kontuez, Basarrik animatuta. Euskal kulturaren bultzatzaile, Euskal Jaiak, bertso saioak eta antzerki emanaldiak antolatzen jardun du.

Zintak

MDX-005

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erdozia, Olatz
- **Data:** 2010-04-16
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

MDX-006

- **Proiektua:** Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erkiaga, Josu
- **Data:** 1985-07-01
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Emalea:** Aita Villasante Euskaltegia, Gernika-Lumoko

MDX-011

- **Proiektua:** Ahaztuen Oroimena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Aitor - Ibarzabal, Patxi - Unamuno, Alberto
- **Data:** 2016-01-01
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Baserriko erremintak I

- **Erref:** MDX-006/001
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Baserriko erreminta batzuen erabilera azaltzen du: aitzurra, aitzurkulua, aitzur zabala, mazoa, laia, goldea, golde txikia, golde nagusia, area, are txikia, are nagusia, alperrarria eta hesia.

Transkripzioa

Lelengo baserriko tresna edo erremintxi nik pentzeten dot atxurre ixengo dala. Atxurre, atxurkulie da atxursabala guk esatentzaune. Atxurkulias, ba, lurre atxurtu eiten da, astindu te... Atxursabala, ba, potxijjek eitzeko edo jorratzeko, landari jorratzeko, sartzeko, da olan erabiltxen da atxursabala. Da gero, ba, masue, sokille joteko, masue erabiltxen da, lurre apurtzeko, haustzeko.

Da gero, ba, laiijie, arreskero laiijie etorriko san gero ta laiijie, ba, lurreri buelta emoteko, lur soiije bueltetakoz bedarra ta sikiñe, ba, aspire sartzeko laiijatu eitzesan lenao.

Da gero, goldie arreskero, laiije eskus ein biar ixetasana, ba, goldie ganadukin erabiltzesan: golda txikijie, norberak saindu biar ixeteban; asta bat eukitxeban kolpeteko da andik saindu ein biar ixetesan golda txikijie. Da gero golda nagosijie, arreskerokue, golda nagosijie. Golda nagosijjek burpillek eukitxebazan da bera ibiltzesan gurpillen ganien ganaduk aurretik si'la, egalien ba norberak jartien, norberak bueltau biar ixeteban goldi, molla bateri sakatute, buelta emon goldiari txebijen bitxartien akulu artu eskun de trankill jutesan, nasai, baserritxarra, jartien, ba axe, bueltau... besterik es.

Da gero, ba, arie: lurre apurtzeko, ba, ara txikijie ta ara nagosijie. Ara txikijie ixetesan, ba, goldadue ta arrek apurtzeko, ba, ara txikijie; egurresko <<etxie» eukitxeban, ortzak -burdiñasko ortzak da arepa apurtu eitzeban, da baitxa, saskari' batzeko edo galtzu onduen saskañe batzeko ta be, ara txikijie erabiltzesan.

Ara naosijie, ba, goldadu aurretik eta, mamiñe eitzeko soluen erabiltxen da ara naosi'; burdiña utze, burdinesku ixeten da. Arek astertu eiten dau pixkat lurre; ara txikijjek es; ara txikijjek ortzakin zeetu eitzen dau baiña es tau, astertu estau eitzen lurrik. Ara naoisijie' pai, ara naosijie burdiñesku' dales astertu eiten dau lurre.

Da gero alperra. Alperra, ba, sokille apurtzeko alperra gero, ganadukin... masu baiño erresao da sokill andijie apurtzeko, ba, alperra: egurreskue «etxie», egurresko «etxie» ta bera arrije, alper arrije, ba, arrije ixetesan. Da esijie be bai. Esijie ixetesan, ba, sokill txikijie doan lekuen ero esijie... autxe aitzeko. Esijie, ba, etxin eitzesan. Ekarri basotik uretx sepak, egurre... take' batzuk sartu de bertan biurrekin biurtu te bertan etxin ein eisijie. Ori ixetesan, ba, ara txikijie ipini gain'n, arris kargau de tatarres ibiltxen ganadu'k... erabiltxe. .. de autz eiteko lurre, austuteko.

2. Baserriko erremintak II

- **Erref:** MDX-006/002
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:03:01. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Baserriko erreminta batzuen erabilera azaltzen du: nabarra, bostortza, igitaia eta gurdia.

Transkripzioa

Beste erremintak, ba, nabasaijje be bai. Ixeten da, ba. .. errestu eitxen dau arek, erretena eitxen dau da bertara artu ereitxeko be ondo eitxesan lenao, artu be eitxesan bertara. Lurre astertu eiten dau arek, nabasaijje. Bestie, bostortza, txarrena esateutze batzuk, baiña bostortza esatentzau guk. Arek estau astertzen lurrik; arek mamiñe eitxen dau baiña estau... astertu barik eitxen dau, bostortzak.

Bedarra ebateko lenao, ba, itaijje erabiltxesan. On segie ta kodaiñe-edo. Ta eru teko, ba, burdijje, bedarra eruteko da simaurretako-ta... burdijje.

Burdijje, ba, egurresko, burkanie ta burpille' pe egurreskuek lenao, berton einde, arotzak berton eitxeben: tira batzuk txapaskuek, burdiñezko tira batzuekin de uela bueltan, burdiñasko eulas; da pertikie, espatie da ardatza, ...astuek eukitxebasan... egurresko astuek lenao da soiñue jo eraitxeutzen lenao ganera burdijjari... arriotarako ta erutebesenien. .. txiliñerakin de beijjek, txiliñerakin de, sapak eta borlak, euren borlakin de beijjen burutako narrue, ardi narruas eitxeutzen...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com